▸ **HERNANI**

▸ **Imanol Larretxea**

Presidente de la Cofradía de la Sidra, Tolarea

# «Estamos consiguiendo dar a conocer la sidra fuera de aquí»

El tercer capítulo de la Cofradía de la Sidra Natural, Tolarea, ya es historia. La reunión anual, además de servir de exhaltación del apreciado zumo de manzana, fue una fiesta a la que se sumaron 31 cofradías gastronómicas.



J.M.M.

Jose Mari MARTINEZ

TOLAREA cuenta con seis nuevos cofrades de honor desde el domingo. La actriz Kontxu Odriozola, el actor Patxi Biskert, el ex-futbolista Jesús Mari Zamora, el técnico de Agricultura de la Diputación Iñaki Larrañaga, el presidente del C.D. Hernani, Ricardo Ramos en nombre de la entidad y el cocinero Pedro Subijana, recibieron la medalla y diploma acreditativos y juraron defender siempre la sidra en un acto protocolario celebrado en el Ayuntamiento.

El balance de la jornada es satisfactorio. «Hemos trabajado muchas horas en preparar todos los detalles de este capítulo y en líneas generales estamos muy contentos», apunta el presidente de la cofradía.

Arropando a Tolarea en su fiesta anual acudieron representantes de 31 cofradías integradas en Fecoga, la federación que las agrupa. Todo un record de asistencia, como reconoció su presidente Juan José Lapitz, justificado, en buena parte, en justa correspodencia a las comparecencias que diferentes embajadas de cofrades locales llevan a cabo en cuantas citas de celebración de capítulos relizan otras cofradías. La mayoría procedían de diferentes localidades de Euskal Herria pero —como recordó Larretxea en el acto de entronización de nuevos cofrades de honor— «hay que agradecer especialmente el esfuerzo de los que han venido de muy lejos (Landas, Salamanca, Burgos, Asturias, etc)».

El capítulo anual trasciende esa mera manifestación festiva y alcanza otros objetivos. «Con esta fiesta, unida a las actividades de Tolarea a lo largo del año, estamos consiguiendo que se dé a conocer la sidra fuera de nuestro entorno. La gente que nos visita se interesa por todo lo relativo a las costumbres y la cultura existente en torno a nuestra bebida natural y luego, además de volver a visitarnos, se convierten en los mejores embajadores», señala Larretxea.

Para los hernaniarras, además supone vivir jornadas de gran colorido y ambiente como la que deparó el desfile de cofradías, precedidadas de la Banda de Música, celebrado el domingo como acto previo a la ceremonia de entronización, al que siguó una concierto de Kantuz Abestbatza. «Es algo que gusta mucho y que es valorado por la gente del pueblo», señala Larretxea. Por cierto que no quieren dejar de agradecer a todos los que colaboraron, entre ellos las niñas y niños que portaban los carteles identificativos de cada una de las cofradías.

### ■ Impulso femenino

En esa línea de reconocimiento está la dedicada a la sidrería Zelaia que acogió la tradicional cita gastronómica, culminación de estas reuniones. «Por darle auge a la sidra y a esta fiesta, Jose Antonio Gainzerain, celoso con el respeto de las normas tradicionales, ha hecho una excepción y un esfuerzo que agradecemos», reconoce el presidente.

Tolarea se ha convertido en una de las cofradías más numerosas en sus dos años de existencia. «Aunque no llevamos a cabo ningún tipo de campaña destinada a incrementear el número de cofrades, rondamos los 85 y en cada capítulo se incorpora alguno nuevo. En esta ocasión ha sido una mujer, Mª Eugenia Gorrotxategi, la que prestó juramento, sumándose así a un colectivo en el que lo femenino tiene gran presencia, no en vano un grupo de ellas fueron destacadas impulsoras del proyecto desde la Asociación de Comerciantes y Hosteleros Berriak», apunta Larretxea.

La cofradía, por otra parte, acaricia un proyecto ambicioso: la creación de un museo de las sidra. Sin embargo la respuesta municipal de momento es tibia. «Tenemos la ilusión de montar ese museo para el que contamos con muchos ofrecimientos de fotografía y utensilios (lagares, prensas, *matxakas*) y otros elementos relacionados con la elaboración tradicional de sidra. Pero no los podemos reunir por falta de un espacio apropiado. Es un proyecto que tendría un carácter vivo y pedagógico para mostrar a las nuevas generaciones cómo se ha elaborado la sidra de forma artesanal y que, se van arrinconando. Esperemos que las promesas del Ayuntamiento de ofrecernos un local se hagan realidad», apostilla.

*Tenemos la ilusión de montar un museo de la sidra. Contamos con ofrecimientos de utensilios antiguos y fotografías. Sería pedagógico.*

▸ **ZARAUTZ**

## Alkoholiko Anonimoen elkarteak lanerako lokal berria

Gari BERASALUZE

Hainbat eta hainbat urtez fraileek utzitako lokal batean bildu ondoren, azken bi urteetan Gurutze Gorria izan dute bilgune Zarauzko Alkoholiko Anonimoen Elkartekideek. Orain, berriz, Udalak berriki Gasteizko Gobernuari erositako Sindikala izeneko lokala utzi dio elkarteari eta, beraz, Salbideko Langako plazan dagoen lokala da orain alkoholarekin arazoak dituzten zarauztarren topalekua.

Zarauzko Alkoholiko Anonimoen Elkartera, gaur egun 30-40 lagun inguru biltzen dira astean bitan egin ohi dituzten bileretara. Elkartekideek adierazi digutenez, «gero eta jende gehiago hurbiltzen da eta, gainera, baita jende gaztea ere. Astelehenetan eta ostegunetan biltzen gara, 8etatik 10etara. Jendea, bere arazo bera dugunon artean gustura dagoelako etortzen da. Azken batean, hona datorrena ohartzen da guk beste inork baino hobeto ulertzen dugula bere arazoa eta konfiantza guztiz hitz egiten du gurekin. Alkoholismoa gaixotasun bat da. Kanpokoek, ordea, askotan ez dute ulertzen hori eta horrek arazo asko dakartza. Hemen, berriz, gure artean oso ondo ulertzen gara eta elkarri lagunduz aurrera egiten dugu. Jendea, egia esateko, zain egoten da noiz iritsiko astelehena edo osteguna, hona etorri eta hitz eginez barrua hustutzeko».

Gaur egun, Zarauzko taldean gazteenak 28 urte inguru dituela azaldu digute bertako partaideek. 35etik 45era bitartekoak dira gehienak, baina badaude helduagoak ere. Beste herriekin alderatuta, adin aldetik antzera gabiltza. Elkartekideen esanean, «beste herrietan gazteagoak ere badaude, batez ere asteburuen ondotik alkoholizatuak. Zarautzen ere gero eta gehiago nabaritzen dugu hori. Partaideei dagokienez, berriz, Zarauzko taldeak partaide asko ditu beste herriekin alderatuta. Altua da guk biltzen dugun lagunen kopurua. Hori horrela zergatik den, ordea, ez dakigu».

Egin ohi dituzten ekitaldiei dagokienez, herri-mailan urtero zenbait hitzaldi antolatzen dituzte Alkoholiko Anonimoek. «Ohiki eskoletatik deitzen digute —diote— institutuan, Antonianotan, eman izan ditugu hitzaldi batzuk. Aurten ere badugu asmoa gazteenei zuzentzeko. Izan ere, harrituta gelditzen dira entzuten dizkiguten istorioekin eta bati baino gehiagori zer pentsatua ematen diogulakoan gaude. Gaineran- tzean, enpresetara ere bidaltzen ditugu gutunak eta hauetara ere joan izan gara hitzaldiren bat ematera. Izan ere, badirudi jendea ohartua dagoela alkohola gaixotasun serioa dela eta honezaz arduratu beharra dagoela. Jendeak galdera sakonak egiten dizkigu, baina guk neurri batean gustura erantzuten diegu, badakigu eta guk jasan ditugunak ezagututa zailago izango zaiela euren alkoholaren txotxongilo bihurtzea».

### Gonbidapena

Bukatzeko, Zarauzko Alkoholiko Anonimoen Elkartea osatzen duten lagunek ez dute inolako zalantzarik premia duen edonor taldera gonbidatzeko. «Gu laguntzeko gaude —diote—. Hona etortzea libre da eta baita gero bakoitzak nahi duena egitea ere. Norbaitek edaten jarraitu nahi badu guk ez diogu debekatuko, baina, hori bai, utzi nahi badu laguntza handia hartuko du gure aldetik».

Laguntzei dagokienez, diru aldetik, Alkoholiko Anonimoen Elkarteak ez du ohiturarik kanpotik dirua jasotzeko eta, beraz, euren patrikatik jarritakoarekin moldatzen dira. «Baina ez da asko izaten. Borondatea bakarrik. Behar ditugunak erosten ditugu diru horrekin. Gure arazoaz hitz egiten duen literatura eta antzekoak erosi eta irakurtzen ditugu», azaltzen dute.

▸ **ZUMAIA**

## Larrialdietako sendagilearen aldeko batzordea desegin da

X.A.

Osakidetzak herrian larrialdietako medikua jartzeko eskatuz lanean aritu den taldea desegin da. Erabaki hori hartzeko unean bi arrazoi izan dituzte bertako kideek kontuan: «Alde batetik, Osakidetzak ez du amore eman nahi, egin zaion eskaera funtsezko arrazoirik gabe baztertu egin baitu, esan dute. Bestalde, Udaleko gehiengoak (EAJ eta PSOEk) Osakidetzaren aurrean ez du gure eskaera apoiatu». Batzordeko kide izan den Isabel Dorronsororen esanean hori argi geratu zen hiru aldeek egin zuten bileran.

«Osakidetzak herritarren kexarik ez dagoela dio. Noski, jendeak kexak ez dizkie idatziz bidali, baina guk deitzen genituen bileretan askotan entzun izan ditugu beren beldur eta kezkak», adierazten du.

Bere ustez oso zaila da Osakidetzak bere antolakuntza aldatzea eta «are gehiago Udalak ez badu serio apoiatzen». Nekea ere nabari dute batzorde honetako kideek. «Bi urte pasatu ditugu eta nekatzen hasiak ginen. Herritarrak ere ohitu egiten dira larrialdiko medikurik gabe», gehitzen du.

Gaur egun sendagilea Zumaiako Gurutze Gorrian egoten da gauez, baina Dorronsoren ustez ez da ezer konpontzen inork behar duenean beste herri batera joana bada. «Oso larri ez bazaude Zarautza joan behar duzu eta behin autoa hartuz gero Donostiaraino zoaz», esan du.